

## ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA

**ENPLEGU ATARI bat egiteko kontratazio prozedura, enplegu atariaren webgunea eta webgunearekin lotutako datu basea garatzeko.**

### ZERBITZU KONTRATUA

#### **A.- KONTRATUAREN XEDEA:**

ENPLEGU ATARI BAT EGITEA.

DESKRIBAPENA: Enplegu atari bat egitea, enplegu atariaren webgunea eta webgunearekin lotutako datu basea garatzeko.

#### **B.- SAIL SUSTATZAILEA**

DEMAren Lehendakaritza.

#### **C.- KONTRATAZIO ORGANOA**

ENPRESA GARAPENARI LAGUNTZEKO DEMA - ENPRESA GARAPENA ELKARTEA

Barakaldo Elkartegia, Fanderia kalea 2, Barakaldo (Bizkaia)  
IFK: G48408405.

#### **D.- LIZITAZIOAREN AURREKONTU BANAKATUA**

PROIEKTUAREN KOSTUAK	90.000 €
MOZKIN INDUSTRIALA	25.500 €
GUZTIRA (BEZ-IK GABE)	115.500 €

#### **D.1- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA**

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA	115.500 €
BEZ (% 21)	24.255 €
GUZTIRA	139.755 €

#### **D.2.- BALIO AURREIKUSIA, BEZik GABE**

115.500 euro

LIZITAZIO AURREKONTU	AURREIKUSITAK O ALDAKETAK	LUZAPENA K	BALIO AURREIKUSI
----------------------	---------------------------	------------	------------------

A (BEZik GABE)	(BEZik GABE)		A BEZik gabe
115.500 €	--	Ez dira aurreikusten	115.500 €

Kalkuluetan sartuta daude proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu, kontzeptu, gastu eta gainerako partida guztiak, eta denak enpresa lizitatuaren kontura izango dira.

- **PLANGINTZA:**

Proiektuburua: 80 ordu  
Teknikaria (1): 40 ordu  
Teknikaria (2): 40 ordu

- **GARAPENA: INFORMAZIO FLUXUAK PRESTATZEA, DATUAK SARTZEKO FORMATUAK KATEGORIZATZEA ETA PLATAFORMAREN DATUEN PROZESAMENDUA ZEHAZTEA:**

Proiektuburua: 80 ordu  
1. teknikaria: 30 ordu

- **PROGRAMAZIOA:**

Proiektuburua: 20 ordu  
Webgunea garatzeko teknikaria: 400 ordu  
Datu basea programatzeko teknikaria (1): 400 ordu  
Datu basea programatzeko teknikaria (2): 400 ordu

- **PROBAK ETA AURRERAPENAK AURKEZTEA:**

Proiektuburua: 80 ordu  
Teknikaria (1): 50 ordu  
Teknikaria (2): 50 ordu

- **EZARPENA:**

Proiektuburua: 90 ordu  
Teknikaria (1): 140 ordu  
Teknikaria (2): 140 ordu

- **ABIAN JARTZEA:**

Proiektuburua: 80 ordu  
Teknikaria (1): 80 ordu  
Teknikaria (2): 80 ordu

Taldeburuaren orduak, guztira: 430 ordu  
Teknikarien orduak, guztira: 1.850 ordu

**Prezioak, gutxi gorabehera:**

**Orduko prezioa taldeburuaren kasuan: 75 euro/ordu**

**Orduko prezioa teknikariaren kasuan: 45 euro/ordu**

**E.- URTEKOAK**

Proiektua 2020an eta 2021ean gauzatu da.

**F.- AURREKONTUAN KONTSIGNATZEA**

199/2020 Ahaldu nagusiaren 2020ko azaroaren 9ko Foru Dekretua, Barakaldoko DEMA - ENPRESA GARAPENARI azpiegiturak finantzatzeko zuzeneko dirulaguntza izenduna ematen diona.

**G.- IZAPIDETZEA ETA ADJUDIKAZIO PROZEDURA**

Izapidetzea: arrunta  
Prozedura: irekia

**H.- LIZITAZIO SISTEMA ELEKTRONIKOA**

## DEMAren kontratatzailearen profila erabiliko da.

www.dema.eus/perfil-del-contratante

### I.- ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

#### I.1. - AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK - B GUTUN AZALA

- Eskaintza ekonomikoa ..... 40 puntu

$$\text{eskaintzaren puntuazioa} = \frac{\text{Eskaintza onuragarrienaren balioa Aurkeztutako}}{\text{Aurkeztutako eskaintzaren balioa}} \times 40$$

Hasiera batean, eskaintzetan anormaltasun presuntzioa dagoela joko da, honako kasu hauetan:

1. Enpresa lizitatuile (aurrerantzean, lizitatuile) bakarra dagoenean, horixe bera, egin duen eskaintza lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino txikiagoa bada % 25etik gorako portzentajea.
2. Bi lizitatuile daudenean, eskaintzarik txikiena, eskaintzarik handiena baino txikiagoa bada % 20etik gorako portzentajea.
3. Hiru lizitatuile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa eginda, % 10etik gorako portzentajea zenbateko hori baino txikiagoa den eskaintza. Dena den, batezbesteko hori kalkulatzeko ez da kontuan hartuko zenbateko handieneko eskaintza, batezbesteko hori baino handiagoa bada % 10etik gorako portzentajea. Edozein kasutan, % 25etik gorako baja bat neurritz kanpokotzat joko da.
4. Lau lizitatuile edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa eginda, % 10etik gorako portzentajea zenbateko hori baino txikiagoa den eskaintza. Dena den, % 10etik gorako portzentajea batezbesteko hori baino handiagoak diren eskaintzak badaude horien artean, batezbestekoa berriz kalkulatu da, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzak bakarrik hartuta. Azkenean hiru eskaintza baino gutxiago gelditzen badira, batezbesteko berria hiru eskaintza txikiak hartuta kalkulatu da. Puntuazio handiena emango zaio prezio txikiena eskaintzen duen lizitatuileari, eta txikiena prezio handiena eskaintzen duenari, baina tartekoei puntuazioa jartzean proportzio egokia gordez, kontratazio publikoa zuzendu behar duten printzipioak errespetatzeko.

- Kontratua gauzatuko duten langileek kontratu mugagabeak izateko konpromisoa

Gehienez 5  
puntu

Gehienez ere 5 puntu emango zaizkie lizitatuileen proposamenei, baldin eta kontratua gauzatuko duten pertsonak kontratu mugagabeak dituzten langileak izateko konpromisoa hartzen badute. Kontratazio mugagabeko konpromiso handiena duen enpresari emango zaio gehieneko puntuazioa, eta gainerako proposamenei puntuazio txikiagoa jasoko dute, proportzionalki, betiere kontratua gauzatzeko baldintza berezi gisa ezarritako gutxienekoa (% 25) gainditzen badute.

$$P_i = 5 \times (C_i - 25) / (C_{\text{máx}} - 25)$$

P<sub>i</sub>: Lortutako puntuazioa

C<sub>i</sub>: Eskaintzako kontratazio mugagabea (%), kontratua gauzatuko duten langileen guztizkoarekiko kalkulatu

C<sub>máx.</sub>: Gehieneko kontratazio mugagabea, aurkeztutako eskaintza guztien artean.

Formula hori aukeratu da aurkeztutako eskaintzak modu mailakatuan eta proportzionalean baloratzeko aukera ematen duelako; horrela, 0tik 5era bitarteko puntuazio guztiak lor

daitezke, aurkeztutako eskaintzaren arabera.

## I.2. - AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK - C GUTUN AZALA

Eskaintzaren kalitate teknikoa..... 55 puntu

Lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzek **35 orri** izango dituzte gehienera jota, eta gutxienez atal hauek izan beharko dituzte:

- a. **Proiektuaren egoera eta ikuspegi orokorra ulertzea; helburuak eta irismena, enpresa lizitatuzaileak proiektuan sartu beharrekotzat jotzen dituen eta proiektuaren irismenetik kanpo dauden eremuak zehaztea: 10 puntu, gehienez.**
- b. **Proiektua gauzatzeko planteamendu metodologikoa; plangintza xehatua, gauzatzeko kronograma eta proiektuaren kontrola eta jarraipena egiteko eredu sartuta: 7 puntu, gehienez.**
- c. **Enpresek aurkezten duten tresnaren bilakaera aukerak, lizitazio honen jatorrizko planteamenduari dagokionez: 8 puntu, gehienez.**
- d. **Proiektuko lantaldea. Proiektuko lantaldea identifikatzea, rolak, curriculumaren aipamen laburra, eta agirian adierazitako profilen eta espezializazio arloen arteko lotura: 6 puntu, gehienez.**
- e. **Web tresna diseinatzea: datuak sartzeko formatuak diseinatzea (galdetegiak, formularioak eta abar). Formatu irisgarriak diseinatzea, eskuarki onartutako parametroei jarraikiz: 8 puntu, gehienez.**
- f. **Datu base irisgarria eta barne langileek kontrola egiteko formatuak diseinatzea: 8 puntu, gehienez.**
- g. **Sarrerako memoria, informazioa prozesatzeko tresnen bidezko datuen prozesamenduaren diseinua: 8 puntu, gehienez.**

**Ebaluatu beharreko puntuak, guztira, formularik gabe: 55.**

Halaber, lizitatuzaileek beren eskaintzaren eranskin gisa aurkeztu beharko dituzte honako hauek:

Proiektuko lantaldeko kideen curriculum vitae xehatuak, Nortasun Agiri Nazionaleko laugarren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren digituak bakarrik adierazita (Adibidez:\*\*\* 5487\*\*. Hau da, taldeko kideen sexua adieraz dezakeen daturik gabe), eta horietako bakoitzari dagokionez, administrazio klausula partikularren agiri honetako proiektuko lantaldearen atalean zehaztutako esparruetako bakoitzean duen parte hartzea adierazita.

Irizpide tekniko guztietan gutxieneko atalase bat jarri da, 25 puntukoa, eta kanpoan geratuko dira zenbateko hori lortzen ez duten enpresak.

Automatikoki kuantifika ezin daitezkeen irizpide teknikoak ebaluatzeko, DEMAk kanpoko enpresa espezializatu baten zerbitzuak erabiliko ditu, kontratatu beharreko zereginen espezializazio handia eta DEMAn ebaluazio hau egiteko gaitasuna duten langileak ez daudelako.

### J- BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez da eskatzen.

### K.- BEHIN BETIKO BERMEA

Adjudikazioaren zenbatekoaren %10, BEZik gabe.

### L.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio.

#### **M.- ALDAERAK BAIMENTZEA**

Ez da aldaerarik onartuko.

#### **N.- GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO EPEA**

Sei hilabete, kontratua formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, bat-bateko gorabeherengatik epea luzatzeko aukerarekin.

#### **Ñ. - LUZATZEKO AUKERA**

EZ.

#### **O.- GAUZATZEKO/ENTREGATZEKO TOKIA**

DEMaren bulegoak: Barakaldo Elkartegia, Fanderia kalea 2, 48901 – Barakaldo (Bizkaia)

#### **P.- BERME EPEA**

Sei (6) hilabete.

#### **Q.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA**

Abenduaren 9ra arte, 13:00etan

#### **R.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO TOKIA**

Gutun azal fisiko itxian, horren barruan A, B eta C gutun azalak sartuta.

DEMaren bulegoan: Fanderia, 2 - 48901 Barakaldo

#### **S.- JAKINARAZPENAK**

Lizitatuzaile orok, prozedura honetan parte hartzeko eta lizitazioari buruzko kontsultak egiteko, aurreikusitako komunikazio sistema erabili beharko du, [contratos@dema.eus](mailto:contratos@dema.eus) helbide elektronikoaren bidez.

#### **T.- KAUDIMENA**

Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko-profesionala honela frogatuko da, dokumentazioa **A GUTUN AZALEAN** erantsita:

#### **1) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa**

- a) Irizpidea: amaitutako azken hiru urteetatik negozio bolumen handieneko urteko negozio bolumena.
- b) Gutxieneko baldintza: azken hiru urteetatik negozio bolumen handieneko urteko negozio bolumenaren zenbatekoa 100.000 euro edo gehiago izango da, BEZik gabe.
- c) Erantzukizunpeko aitortpena beteko da, 8. eranskinaren arabera.
  - Onartutako eta enpresak inskribatuta egon behar duen Merkataritza Erregistroan edo Erregistro Ofizialean gordailututako urteko kontuetan agertzen diren baloreak kontsignatuko dira.
  - Lizitatuzaileak, baliozko arrazoi batengatik, amaitutako azken hiru urteetatik bolumen handieneko urteko kontuak onartuta eta gordailututa ez dituenean (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko betebeharririk ez duelako edo enpresa sortu berria delako), arrazoia adieraziko du aitortpenean.
  - Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden enpresaburu indibidualek, eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoia adierazi duten enpresaburuek, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatzeko aurkeztu beharko dituzte, erantzukizunpeko aitortpenaz gain, balio erantsiaren gaineko zergaren aitortpenaren 303 eta/edo 390 ereduak edo baliokideak, edo sozietateen gaineko zergaren aitortpenaren 200 eredu edo baliokidea.

Egiaztagiri guztiak eskaintzarik onena aurkeztu eta adjudikazioa lortu duen lizitatuzaileak bakarrik

aurkeztu beharko ditu.

## **2)Kaudimen tekniko-profesionala**

- a) **Irizpidea**: kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten lanak egiten esperientzia izatea.
- b) **Gutxieneko baldintza**: azken 3 urteetatik gauzatze handieneko urtean zerbitzu horietan gauzatu gisa egiaztatu behar den urteko zenbateko metatua 65.000 euro edo gehiago izango da, BEZik gabe.
- c) **Erantzukizunpeko aitortpena beteko da, 9. eranskinaren arabera**:
- Kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera berarekin edo antzekoarekin egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, azken 3 urteetatik gauzatze handieneko urteari dagokiona, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa nahiz pribatua) adierazita, 9. eranskinaren arabera. Zerbitzu edo lan horiek organo eskumendunak emandako edo onartutako agiri bidez frogatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakundea denean; eta hartzailea subjektu pribatua izanez gero, berak emandako ziurtagiriaren bidez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaren aitortpenaren bidez. Hartzailea DEMA denean, ez da beharrezkoa izango zerrendan jasotako zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztea.
  - Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetan, kontratista enpresa sortu berria denean, hau da, bost urtetik beherako antzintasuna duenean, kaudimen teknikoa frogatuko da jarraian adierazten den informazioarekin, eta ez da inola ere eskatuko kontratuaren xede diren zerbitzuen edo lanen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkezteko:
    - Langileak edo unitate teknikoak, kontratuan parte hartzen duen enpresan sartuta egon ala ez, aipamen berezia eginez kalitate kontrolaz arduratzen diren pertsonen.
    - Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritzaren titulu akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, kontratua gauzatzeaz arduratuko den pertsonarenak edo pertsonenak, bai eta zuzenean gauzatzeaz arduratuko diren teknikariarenak ere, betiere adjudikazio irizpide gisa ebaluatzen ez badira.

Egiaztagiri guztiak eskaintzarik onena aurkeztu eta adjudikazioa lortu duen lizitatuak bakarrik aurkeztu beharko ditu.

### **Baliabide materialak eta/edo giza baliabideak:**

- **Proiektuaren zuzendariaren profila.** Proiektuaren zuzendaria funtsezko lotura elementua da kontratu hau gauzatzeko; proiektuaren Idazkaritza Teknikoarekiko harremanen arduraduna da, eta proiektuaren garapenaren Jarraipen Batzordeko kide. Unibertsitate mailako prestakuntza teknikoa izan behar du, webguneen eta lotutako datu baseen diseinuan espezializatua, eta gutxienez 5 urteko esperientzia izan behar du antzeko proiektuen zuzendaritzan.
- **Teknikarien (1 eta 2) profila.** Teknikariek zeregin orokor hauek izango dituzte: aurre-diseinua, plangintza, diseinua, ezarpena, informazio fluxuen diseinua, sarrera formatuen kategorizazioa eta datuen prozesamenduaren definizioa, kalitate kontrola, berrikuspena, abian jartzea, plataforma kontrolatzea eta kudeatzea, eta, oro har, laguntza teknikoa proiektuaren fase guztietan. Teknologiararen arloko formakuntza (ingeniaritza) eta antzeko proiektuak garatzen eta ezartzen esperientzia duten pertsonak nahi dira. Gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute zeregin horietan.
- **Webgunea garatzeko teknikariaren profila.** Formakuntza teknikoa izan behar du, eta enplegu atariaren webgunea egiteaz, diseinatzeaz, edukiak prestatzeaz, programatzeaz eta edukiak kargatzeaz arduratuko da. Gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko du zeregin horietan.
- **Datu baseak garatzeko teknikarien (1 eta 2) profila.** Webgunearekin lotutako datu basea garatzeaz arduratuko dira, eta, era berean, proiektu honekin bete nahi diren helburuekin lotutako prozesu guztiak diseinatuko dituzte; datu baseko datuak prozesatzeko diseinua egin,

erabiltzaileen datuak aztertzeko prozesua diseinatu eta gauzatu, eta ondorioak aurkezteko prozesua ezarriko dute.

Era berean, adjudikaziodunak egoitza sozial edo establezimendu bat eduki eta identifikatu beharko du Bizkaian, laguntza teknikoko eta aholkularitzako zerbitzu hau emateko beharrezkoak diren lanak bertan egiteko.

Nolanahi ere, kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren harremanak eta komunikazioak bideratzeko, adjudikaziodunak solaskide bat eta solaskide ordeko bat izendatuko ditu, kontratua gauzateari buruzko komunikazioak jasotzeko. Solaskideari dagokio DEMAK zerbitzua emateari buruz dituen galderak jakinaraztea zerbitzua gauzatzeko ardura duten pertsoneri.

Eskatzen den gutxieneko talde teknikoko kide bat ordeztu nahi izanez gero, kontratuaren arduradunari jakinarazi beharko zaio alde aurretik, eta, horrekin batera, ordezkoaren izena adierazi eta kontratu hau arautzen duten agirietan eskatzen diren formakuntza eta esperientzia betekizunak frogatuko dira. Taldean sartuko den profesional berriaren jakinarazpena eta proposamena jaso ondoren, ordezkapenarekin ados dagoen ala ez jakinaraziko dio kontratuaren arduradunak adjudikaziodunak izendatutako solaskideari.

Obligazio hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, funtsezko eginbeharrak ez betetzea baita.

Gainera, kontratistak ez baditu bete, guztiz edo neurri batean, kontratuan datuak babesteari buruz zehaztutako betebeharrak, kontratazio organoak kontratua suntsiaraz dezake, funtsezko betebeharra delako.

## **U.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA**

Kontratazio prozedura hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta DEMAREN kontratatzailearen profilean (<https://www.dema.eus/perfil-del-contratante>) argitaratuko da.

## **V.- BESTELAKO ZEHAZTAPENAK**

### **1.-Errekurtsoen araubidea. Kontratazio arloko errekurtsio berezia**

BAI

### **2.- Kontratu gauzatzeko baldintza bereziak**

#### **-Langileen ehuneko batek kontratu mugagabea izateko betebeharra:**

Kontratu gauzatzeko baldintza berezi gisa, hori gauzatu duten langile guztien % 25ek, gutxienez, kontratu mugagabea izan behar dute.

#### **-Hizkuntza araubidea:**

Kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunari adieraziko dio zer lan aurkeztu behar dituen bi hizkuntza ofizialetan. DEMAK ez du bere gain hartuko kontratu honen ondorioz sortutako idatzizko dokumentuen itzulpenik.

Nolanahi ere, webgunea eta bere eduki guztiak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira (euskaraz eta gaztelaniaz), eta prest egongo da edukiak bi hizkuntzetan mantentzeko eta eguneratzeko.

#### **-Enplegua eta langileak mantentzeko betebeharra:**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 202. artikulua arabera, enpresa lizitatuak agintzen du, adjudikazioduna izanez gero, eskatutako gutxieneko enplegatu taldeari edo eskaintzan aurkeztutako konpromisoaren bidez hartutako langileei eutsiko diela kontratuak irauten duen bitartean. Horretarako, enpresa lizitatuak erantzukizunpeko aitopene baten bidez adierazi

beharko dute zenbat langile izango dituzten kontratua gauzatzeko, bai eta horien lanaldia ere, urteko lanorduetan adierazita. Kontratuak irauten duen bitartean enplegatu taldea ez bada homogenea, egutegi bat aurkeztu beharko da, honako hauek zehaztuz: pertsona kopurua, bakoitzaren lanaldia (urteko lanorduak), eta kontratuaren hasiera eta amaiera datak. Enplegua eta langileak mantentzeko betebeharraren jarraipen espezifikoa egingo da.

Kontratuaren enpresa edo erakunde adjudikaziodunak bere proposamenean hartutako konpromisoak betetzen dituela frogatuko du, honako dokumentazio hau aurkeztuta:

- Kontratu formalizatu eta hilabeteko epean, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak jakinaraziko ditu kontratatutako pertsonen datuak eta, horretarako, Gizarte Segurantzako altaren eta lan kontratuaren kopia bat aurkeztuko dio kontratuaren arduradunari.
- Hilero, kontratuak irauten duen bitartean, enpresa adjudikaziodunak TC1 eta TC2 agiriak eta enpresaren matrikula liburua aurkeztu beharko dizkio kontratuaren arduradunari, obligazio hori benetan betetzen dela egiaztatzeko.
- Kontratuaren arduradunak aipatutako dokumentazioa eska diezaiolke enpresa adjudikaziodunari, edo kontratua betetzen dela kontrolatzeko eta ebaluatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri, eta jarraipen bilerak edo aldizkako ebaluazio txostenak egiteko ere eska dezake.
- Oro har, kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen direla zainduko da:

Kontratuaren arduradunak haren gauzatzearen edozein unetan eska diezaiolke adjudikaziodunari atal honetan jasotako obligazioak betetzen dituela bermatzeko dokumentazioa eta/edo, hala badagokio, txostenak eta/edo jarraipen bilerak egiteko eska dezake.

Kontratuaren arduradunak bertan aurreikusitako obligazioen balizko ez-betetzeen berri emango dio kontratazio organoari eta, hala badagokio, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura hastea proposatuko du.

- **Kontratu gauzatzeko baldintza bereziak ez betetzearen ondorioak.**

Hemen adierazitako baldintzak betetzen ez badira, honako zigorrak jar dakizkioke kontratistari, dagokion espedientearen izapidetu ondoren:

- a) Enplegua eta langileak mantentzeko betebeharra  
Kontratu gauzatzeko baldintza berezi hori giza baliabideen atalari lotuta dago, zeina funtsezkotzat jotzen baita SPKLren 211.1 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako; beraz, baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.
- b) Hizkuntza araubidetik etorritako betebeharrak  
Atal horretan ezarritakoa ez betetzea arau hauste larritzat hartuko da, eta adjudikazio prezioaren % 5eko zigorra izango du.  
Kontratu honetan aurreikusitako gainerako gauzatze baldintza bereziak betetzen ez badira, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 9.9.2.2 atalean aurreikusitako zigorrak jarriko dira.

- **Prezioaren ordainketa:**

Ordainketak geroratuta egingo dira, hilero gauzatutako orduak justifikatu eta proiektuaren bilakaeran lortutako mugarriak frogatu ondoren. Kontratazio organoak egiaztatuko du mugarriak lortu direla, Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin. Aldeek kontratuan hitzartutako lortu beharreko mugarriak eta mugarriak betetzeari lotutako ordainketen zatikatzea.

- **Erantzukizun zibileko aseguru:**

Enpresa adjudikaziodunak erantzukizun zibileko aseguru poliza bat aurkeztuko du, zeinak indarrean egon beharko duen kontratua gauzatzen den bitartean eta haren bermealdian. Poliza horrek, besteak beste, enpresaren eta proiektuan parte hartzeko kontratatutako pertsonen erantzukizun profesionalak estaliko ditu, 600.000 eurotik gorako estaldurarekin.

**3. Aurreikusitako aldaketak:**

EZ



#### **4. Fakturak ordaintzea.**

Faktura azken organo hartzaileari behar bezala bidaltzeko, DEMAk emandako datu fiskalak erabili beharko dira. Fakturazio gaietarako, helbide elektronikoko hau erabiliko: [facturas@dema.eus](mailto:facturas@dema.eus)

#### **5. Kontratuaren arduraduna.**

DEMAren Lehendakaritza

Barakaldon, 2020ko azaroaren 20an